

ADARRA

Pedagogi Erakundea

Mitxel Labegerie, 2-3º Dpto3,
48005 - Bilbao
944153795 www.adarra.org



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN



**Elkarbizitzari buruzko
jardunaldien ondorioak
(Bilbo, 2006ko azaroaren 28,29 eta 30a)**

Elkarbizitza ikastetxeetan: azkenaldian gehien jorrotutako gaietako bat da, komunikabideetan zein bestelako eremuetan, hizkuntza-eremuak eta politikoak barne.

Elkarbizitza era isolatuan aztertu egiten da; edota gizarte eta familia harremanetan sortutako aldaketekin erlazionaturik, eta ikastetxeetan egon den gizarte-, kultura- eta etnia-aniztasunaren gorakadarekin erlazionaturik soilik. Oro har, irakasleen aginpide-galerari eta ikasleen diziplina-faltari leporatzen zaie gatazken jatorria. Ikuspegi horretatik, proposatzen den irtenbidea, larderiara eta arau zorrotzetara bueltatzea da. Hau da, beti ere, errudunak bilatzea eta zigor gogorragoak ezartzea, baina ahaztu egiten da gizartean eta harremanetan aldaketa nabaria egon dela eta larderiazko ereduak ez direla ez onargarriak ez onartuak.

ELKARBIZITZA HOBETZEA

Orokorki uste da eskola-gatazkek eta bizikidetzaren narriadurak ikasketa-mailaren jaitsiera eta ikasleen errendimenduaren murrizketa dakartzatela; baina, errealitatean, alderantziz gertatzen da: hezkuntza-eskaintzaren maila baxuak eta erronka-faltak interesik eza eta ikasgeletako gatazka asko sortzen dituzte.

ADARRAren ustez, ikasketak hobetzea eta elkarbizitza ontzea beti lotuta daudela. Eskola-elkartearen helburua ikasketak sustatzea da. Eta eskolan bizikidetzaren hobetzeko proposamenak ezin dira eskola-arrakastaren lorpenetik banandu.

Gure iritziz, eskolak helburu bikoitza dauka:

- hezkuntza-berdintasuna lortzea; eta, horretarako, pertsona guztiei kalitatezko hezkuntza eskaintzea eta ikasketak bizkortzen ahalegintzea, bereziki ezberdintasun-egoeran daudenen kasuan.
- elkarrekin bizitzen ikastea eta bizikidetza hobetzea.

Garrantzizkoa da ikasgelan eta eskolaren antolaketan aldaketa metodologikoak sustatzea, erraztasunak emateko ikasle guztiek ikas dezaten eta ikasketa hori elkartasunezkoa izan dadin. Horixe da modurik onena bizikidetza hobetzeko, pertsona guztiei kalitatezko irakaskuntza eskaintzen zaien aldi berean.

EREDU KOMUNITARIOA

Bizikidetza hobetzeko arrakasta izan duten hainbat esperientziaren gaineko azterketak eta hausnarketak proposamen zehatz batera garamatzate: "Bizikidetzarako Elkarre-eredua" deritzana, hain zuzen.

Eredu horrek proposatzen du eragile guztiek -ikasleek, irakasleek, edozein kulturatako familiek eta beste eragile batzuk, hain zuzen- berdintasunean parte hartzea eskolako bizitzan. Arazoak konpontzeko bidea aurkitzen da bakarrik tartean dauden eragile guztiak lankidetzan aritzen direnean. Komunitate osoak elkarrizketan diharduenean, gatazken zergatiak eta jatorriak hasieratik aztertzen dituenean, orduan egin diezaiokegu aurre arazo askoren agerpenari, eta ez

gertatzea lor dezakegu, lankidetzan, komunikazio handiagoa, elkarrekiko ezagutza eta konfidantza batzen dituen giroa sortu ezker.



Hona hemen gakoa: komunitate osoak antolakuntzaren aspektuen diseinuan parte hartzea eta behar diren arauak prestatzea, ikastetxeak funtziona dezan, irakaskuntza eta ikasketaren arloko helburuak bete ditzan eta, aldi berean, elkarre guztietan sortuko diren gatazkei aurre egin diezaian

Ikastetxeetan estrategiak bultzatu behar ditugu honako hau lortzeko:

- ikasketak sustatzeko eta ikasleen arteko elkarrekintzak bultzatzeko, ikasgelan pertsona heldu gehiago, talde interaktiboak, literatur tertuliak, tutorepeko liburutegiak, teknologia berriak... erabiliz
-
- ikasgelako ordezkariekin, ikasleekin, familiekin, monitoreekin, batzorde mistoekin... egindako bileretan, ikasgelako biltzarretan, e.a., hezkuntza-komunitateko sektore guztien partaidetza posible egiteko
- erraztasunak emateko, eskolan ematen den denbora guztia ikasteko denbora izan dadin, jolasaldia eta jantokiko aldia hobeto antolatuz, eskolaz kanpoko ordutegia zabalduz...

Halaber, hausnarketa egin behar dugu pertsonak ditugun harremanen inguruan, eta sortutako gatazkak konpontzeko erabiltzen ditugun estrategia ezberdinen inguruan. Gatazka baten konponketak bizikidetzak hobetzen du, inplikaturako eragile guztiok irabazten badugu eta galtzailerik ez badago. Gainera, era berezian zaindu behar ditugu sortutako kalteen ordaina eta alderdi guztien adiskidetzak.

Bide horretan aurrera egiteko ezinbestekoa da eskola-elkarteko kide guztien arteko lotura lantzea, bai elkarren artean, bai eskolarekin. Eskolako parte garela sentitzen badugu bakarrik, hartuko dugu parte aktiboa bertan, eta partaidetza gakoa da eskola-komunitateak funtziona dezan eta era eraginkorrean antolatu dadin.

Ezinbestekoa da ere elkarbizitzaren arazoari ikuspegi komunitario batetik aurre egitea eta gaia aztertzeko ikastetxeko pertsona guztiek inplikatzeko, gizarte demokratiko batean eskola-bizikidetzarako larderiak eredu batek (hau da, aspalditik urrutiko somatzen gure eredu batek) ematen dituen kontraesanak gainditzeko; bereziki gaur egun, pertsonen arteko harremanak berdintasunezko ikuspegietatik planteatzen direnean, pertsonen, gizartearen zein legearen eremuan.



Bilbo, 2007ko maiatza

ADARRA PEDAGOGI ERAKUNDEA